

11/12

*irizpena*

Emakume nekazarien Estatutuaren  
Legearen Aurreproiektuari buruzkoa

Bilbon, 2012ko ekainaren 15ean



CES  
EGAB

Consejo Económico  
y Social Vasco

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte  
Arazoetarako Batzordea



CES  
EGAB

Consejo Económico  
y Social Vasco

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte  
Arazoetarako Batzordea

©Argitalpena: EEGAB

Gran Vía 81, 7. solairua  
48011 Bilbao. Bizkaia  
[www.cesvasco.es](http://www.cesvasco.es)

Maketazioa: EEGAB

Inprenta: Gestingraf

Lege Gordailua: BI-1164-12



*i*rizpena

11/12



## **I.- SARRERA**

---

2012ko maiatzaren 16an, Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailaren idazkia jaso zen Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordean, emakume nekazarien Lege Aurreproiektuari buruzko txostena eskatzeko, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen ekainaren 27ko 9/1997 Legearen 3.1.a) artikuluan ezarritakoarekin bat etorritz.

Irizpenpean jarritako Legearen Aurreproiektuaren xedea da emakumeen eta gizonen arteko berdintasun-printzipioa gauzatzea nekazaritzan, eta beren eskubideak erabiltzea bermatzea emakume nekazariei, haien autonomia sustatzeko eta haien posizio soziala, ekonomikoa eta politikoa indartzeko. *11/12j*

Berehala igorri zitzaien horren ale bat Batzordearen osoko bilkurako kide guztiei, proposamenak eta iritziak emateko eta Lan Batzordeari helarazteko, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen Funtzionamenduaren Arautegian ezarritakoaren arabera.

Gizarte Garapenaren Batzordea 2012ko ekainaren 8an bildu zen, Irizpen Aurreproiekturako lehen proposamena eztabaidatzeko. Egun berean, Irizpen Proiektu hau onetsi zuen Batzordeak, Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen maiatzaren 17ko 8/2012 Lege berrian araututa dagoenez, eta Euskadiko EGABren 2012ko ekainaren 15eko osoko bilkurara helarazi eta aho batez onetsi da.

## **II.- EDUKIA**

---

Hauexek ditu Legearen Aurreproiektuaren testuak: Zioen Azalpena, 31 artikulua, bi xedapen gehigarri, xedapen indargabetzaile bat eta lau azken xedapen. 6 titulutan dago egituratuta, hauexei buruzkoak: Xedapen Orokorrak, Nekazaritza ustategien titulartasuna eta titulartasun partekatua, Emakumeek nekazaritzaren sektorean duten ordezkartza, Gizarte eskubideak, Emakume nekazariak aintzatestea eta ikusaraztea; azken titulua Estatutua Jarraitzeko Batzordearen gainekoa da.

## ZIOEN AZALPENA

Emakume nekazarien Estatutuaren Legearen Aurreproiektuan aipatzen denez, emakumeek nekazaritzaren sektorean pairatzen duten diskriminazioari aurre egiteko beharragatik sortu da Aurreproiektua, batez ere lanbide balioespenari eta gizarte aintzatespenari dagokienez, baita haien eskubide profesionalak, sozialak eta fiskalak erabiltzeari dagokionez ere.

Diskriminazio hori emakume nekazari askoren egungo egoeran ageri da. Hala, ustiategiaren emakume titularren proportzioa handitu bada ere, oraindik ere proportzio desorekatua da. Desberdintasuna, ordea, ez dator bat emakumeek nekazaritza ustiategietan egiten duten benetako lanarekin, zeren askotan erabat ikusarazi gabeko lanak baitira. Bestalde, kontratazioaren arloan ere, handia da emakumeen eta gizonen diferentzia, betiere gizonezkoen mesederako.

Era berean, ikus daitekeenez, jardueraren dimentsio ekonomikoa handitu ahala, behera egiten du emakumeek hartutako erabakien ehunekoak. Hala, emakumeek nekazaritzaren arloko erabaki organoetan duten partaidetza gizonezkoena baino askoz txikiagoa da.

Azaltzen denez, emakumeek etxeko lanetan eta zaintza-lanetan ematen duten denbora gizonezkoek ematen dutenaren bikoitza baino gehiago da, emakumeen aisialdiaren kalterako; horrek lanen banaketarako eredu tradizionalari eusten dio.

Aldi berean, laneko arriskuen prebentzioaren ardatza gizonezkoen osasunerako kaltegarriak izan litezkeen alderdien multzoa izan da, eta gero ondorioak emakume eta gizonengana zabaltzen dira, faktore bereizgarriak aintzat hartu barik. Sexu jazarpen eta jazarpen sexistaren egoera posibleak ere agerrarazi dira; horien ezaugarriak direla-eta, tratamendu espezifiko behar da.

Horrenbestez, Legearen lehentasunen artean, hauek aipatzen dira: Emakume nekazariak titulartasuna eskuratzea sustatzea, haien lana ikusarazteko eta lanaren ondoriozko eskubide guztiak balia ditzaten lortzeko; emakumeen kontratazioa, zeren eta gizonezkoena baino nabarmen txikiagoa baita;

egitekoen banaketaren eredu tradizionala aldatu beharra azpimarratzea; emakumeek eta gizonen osasunaren inguruan dituzten faktore bereizgarriak aintzat hartzea eta emakumeek nekazaritza lanetan duten osasuna bermatzeko neurri egokiak hartzea; eta neurri egokiak abiaraztea, nekazaritzaren arloan sexu jazarpenari eta jazarpen sexistari aurre egiteko: horien berezitasunak direla-eta, tratamendu espezifikoa behar da.

Gainera, arlo horretan arau aurrekaririk ez bada ere, hainbat agiritan egiteko gomendio eta manu ugari dagoela esaten da. Bereziki garrantzizkoak dira honako hauek:

- Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2010eko uztailaren 7ko 2010/41/EB Zuzentaraua, jarduera autonomoa egiten duten gizonen eta emakumeen arteko tratu-berdintasunaren printzipioa aplikatzeari buruzkoa; horren bidez, indarrik gabe gelditu da Kontseiluaren 86/613/EEE Zuzentaraua.
- Kontseiluaren 1978ko abenduaren 19ko 79/7/EEE Zuzentaraua, gizarte segurantzaren arloan emakumeen eta gizonen arteko tratu-berdintasunaren printzipioa pixkanaka aplikatzeari buruzkoa.
- Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2006ko uztailaren 5eko 2006/54/EB Zuzentaraua, gizonen eta emakumeen arteko tratu-berdintasunaren printzipioa enpleguaren eta okupazioaren arloetan aplikatzeari buruzkoa.
- Abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoa, genero-indarkeriaren kontrako babes osorako neurriei buruzkoa.
- Otsailaren 18ko 4/2005 Euskal Legea, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunari buruzkoa.
- Abenduaren 23ko 17/2008 Euskal Legea, Nekazaritza eta Elikagaigintza politikari buruzkoa. Horren 75. artikuluan, Emakume Nekazariaren Estatutua egiteko agindua ematen da, eta haien sustatzeko ekintza positiboak aipatzen dira.
- Urriaren 4ko 35/2011, Estatuko Legea, nekazaritza ustiatzearen titulartasun partekatuari buruzkoa.

## XEDAPENAK

### **I. TITULOA: XEDAPEN OROKORRAK**

1. artikulua. Xedea.
2. artikulua. Oinarriak
3. artikulua. Tratu-berdintasuna
4. artikulua. Ekintza positiboa
5. artikulua. Aukera-berdintasuna
7. artikulua. Definizioak
8. artikulua. Emakume nekazarien aniztasuna
9. artikulua. Askotariko diskriminazioa

II/12j

### **II. TITULUA: NEKAZARITZA USTIATEGIEN TITULARITATEA ETA TITULARITATE PARTEKATUA**

10. artikulua. Titulartasuna eskuratzeko eskubidea
11. artikulua. Titulartasun partekatuaren beharkizunak
12. artikulua. Titulartasun partekatuaren araubidea
13. artikulua. Titulartasun partekatuaren erregistroa
14. artikulua. Zabalkunderako neurriak
15. artikulua. Laguntzak eta diru-laguntzak
16. artikulua. - Esleipenak
17. artikulua. Emakumeak gizarte segurantz an afilietzea sustatzea.

### **III. TITULUA: EMAKUMEEK NEKAZARITZAREN SEKTOREAN DUTEN ORDEZKARITZA**

18. artikulua. Administrazio organoetan parte hartzeko eskubidea
19. artikulua. Parte-hartze soziala eta politikoa
20. artikulua. Emakumeen inoren konturako promozioa eta lana nekazaritzaren sektorean
21. artikulua. Hitzarmenak

### **IV. TITULUA: GIZARTE ESKUBIDEAK**

22. artikulua. Bateratze arduratsua
23. artikulua. Laneko osasuna
24. artikulua. Emakumeen kontrako indarkeriaren eta jazarpen sexistaren kontrako babesa



25. artikulua. Prestakuntzarako eskubidea

26. artikulua. Berdintasunaren arloko prestakuntza Artículo 25. Derecho a la formación

## **V. TITULUA: EMAKUME NEKAZARIAK AINTZATESTEA ETA IKUSARAZTEA**

27. artikulua. Emakumeen lana aintzatestea

28. artikulua. Azterlanak, ikerketak eta estatistikak

## **VI. TITULUA: JARRAIPEN BATZORDEA**

29. artikulua. Sorrera eta eraketa.

30. artikulua. Egitekoak

31. artikulua. Funtzionamendua

11/12 

## **XEDAPEN GEHIGARRIAK**

Lehena. Landa garapenerako elkarteak

Bigarrena. Elkarte eta erakundeentzako laguntzak

## **XEDAPEN INDARGABETZAILEA**

### **AZKEN XEDAPENAK**

Lehena. Nekazaritzaren eta Elikagaigintzaren abenduaren 23ko 17/2008 Legearen 14. artikulua aldatzea.

Bigarrena. Nekazaritzaren eta Elikagaigintzaren abenduaren 23ko 17/2008 Legearen 92. artikulua aldatzea.

Hirugarrena. Arauen garapena.

Laugarrena. Indarrean sartzea.

**I. Tituluak (Xedapen Orokorrak, 1-9. artikulua)** Estatutuaren xedea eta horren oinarriak zehazten ditu (tratu-berdintasuna, aukera-berdintasuna eta genero-ikuspegia txertatzea). Era berean, definizioak dakartzan artikulua bat du, eta definizio horietako zenbait kontzeptu orokorrak arau honen eremuari egokitzeko dira. Beste batzuek, berriz, beste arau batzuetan dagoeneko definituta egon arren, hemen errepikatzen diren kontzeptuak biltzen dituzte, testua hobeto ulertzeko eta erabiltzeko.

**II. Titulua. Nekazaritza ustiategien titularitatea eta titularitate partekatua (10-17. artikulua)** emakumeek nekazaritza ustiategien titularitatea eskuratzeari buruzkoa da. Testuari koherentzia emateko, Nekazaritza Ustiategiak Berritzeari buruzko uztailaren 4ko 19/1995 Legean (Titulartasun Partekatua Legeak berau berritu ondoren) ezarritako beharkizunak dakartza, baita emakume nekazariak titularitatea eskuratzeko sustatzeko neurriak ere. Titulartasun partekatua oso tresna garrantzitsua izango da emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna lortzeko nekazaritzaren sektorean. Ustiategian lan egiten duten bizikidetzaren unitateko kide biek titulartasun partekatua baliatzea sustatzen du Estatutu honek, laguntzak eta esleipenak ematean ustiategi horiek lehenetsita eta emakume nekazariak Gizarte Segurantzaren afiliatzeko laguntzak ezarrita.

II/12j

**III. Titulua emakumeek nekazaritzaren sektorean duten ordezkari buruzkoa da (18-21. artikulua)**. Hiru jarduketa-arlo bereizten dira, eta tratu berezia jasotzen dute: administrazioa eta horren enpresak; lanbide erakundeak eta elkarteak, eta enpresa pribatuak. Hirurek dute ezaugarri komun bat: emakumeek nekazaritza politikan parte hartzen duten eskubidea gauzatzeko eta baliozko solaskidetzat legitimatzea haien interesen eta beharren aldeko politikak bultzatzean. Hainbat epetan lorgarritzat jotzen diren helburuek ematen dute arloen tratamendu ezberdina, baina batez ere helburu horiek lortzeko neurriak. Zenbait helburu ezarri ditu Legeak, epeak emanda, eta epe horien ostean helburuok bete diren ebaluatu beharko da.

**IV. Titulua. Gizarte eskubideak (22 – 26. artikulua)**: laneko zenbait arlo azpimarratzen dira; komenigarritzat jotzen da arlo horiek nekazaritzaren sektorean tratamendu espezifiko izatea, sektorearen bereizitasuna dela-eta. Hala, bateratzearen arloan, nekazaritza jarduera bermatzen duten programak bermatu behar dira, edo emakumeen kontrako indarkeria edo jazarpen arazoaren aurrean; izan ere, nekazaritzaren sektorean giro itxiagoa eta bakartuagoa denez gero, zailagoa da arazo horiek prebenitzea eta arreta ematea.

**V. Titulua. Emakume nekazariak aintzatestea eta ikusaraztea (27 eta 28. artikulua)**. Emakumeek nekazaritzaren sektorean egin duten eta egiten duten lana ikusaraztea eta aintzatestea lortu nahi da. 4/2005 Legean ezarritakoa jaso eta sektorea lege horretara egokitzen du, zertarako-eta emakumeen lanaren

errealitatea kontuan hartzeko bereziki ikusezinak izan diren sektore batean.

**VI. Titulua** eta azkena (**29 – 31. artikulua**). Legean xedaturikoa betetzeko Jarraipen Batzordea sortu du. Izaera teknikoa eman nahi izan zaio. Horregatik, Nekazaritza eta Abeltzaintza zuzendariaren kargu publikoa besterik ez duen eraketa ezarri da, eta kasu horretan ere eskuordetzea aurreikusten da. Irizpide tekniko berarekin esleitzen zaizkio Batzordeari ebaluazioa eta txostenak gauzatzeko eginkizun zehatzak.

**Lehen Xedapen Gehigarria** landa garapenerako elkarteen estatutuak egokitzeko epeari buruzkoa da.

**Bigarren Xedapen Gehigarria** elkarte eta erakundeentzako laguntzen gainekoa da.

11/12*i*

**Xedapen Indargabetzaileak** indarrrik gabe utzi du Nekazaritzaren eta Elikagaigintzaren abenduaren 23ko 17/2008 Legearen 76. artikulua.

**Lehen Azken Xedapenak** Nekazaritzaren eta Elikagaigintzaren abenduaren 23ko 17/2008 Legearen 14. artikuluko 3. idatz-zatia aldatu du.

**Bigarren Azken Xedapenak** Nekazaritzaren eta Elikagaigintzaren abenduaren 23ko 17/2008 Legearen 92. artikulua aldatu du.

**Hirugarren Azken Xedapenak** ezarri duenez, Autonomia Erkidegoko erakunde erkideek eta lurralde historikoetako foru organoek beharrezko aldaketak onetsiko dituzte haien arauetan, lege honetan ezarritakoari egokitzeko indarrean sartu eta hiru urteko epean.

**Laugarren Azken Xedapena** Legea indarrean sartzeari buruzkoa da.

### **III.- OHARBIDEAK**

---

#### **III.1 Oharbide Orokorrak**

Gure inguruko lurraldeetako landa eremuan ikusten den ezaugarri komuna da emakumeen eta gizonen eskubide berdintasuna aintzatesteko prozesua motelago joatea.

Hala, nekazaritzaren eremuan hainbat emakumek egiten dute lan nekazaritza ustiatégian, baina ez dira horren titular ageri.

II/12*i*

Halaber, emakumeek etxeko lanetan eta zaintza-lanetan ematen duten denbora gizonezko ematen dutenaren bikoitza edo gehiago dela ikusten da, betiere emakumeen aisialdiaren kalterako.

Bestalde, kontratazioaren arloan ere nabarmena da emakumeen eta gizonen arteko aldea, gizonen mesederako betiere. Gainera, deigarria da emakumeek nekazaritzaren arloko erabaki organoetan duten partaidetza gizonezkoena baino askoz txikiagoa izatea, eta jardueraren tamaina ekonomikoa handitu ahala, behera egiten du emakumeek hartutako erabakien ehunekoak.

Aldi berean, laneko arriskuen prebentzioaren ardatza gizonezkoen osasunerako kaltegarriak diren alderdiak izan dira, eta ondoren ondorio horiek emakume eta gizonezkoengana zabaldu edo orokortu dira, faktore bereizgarriak aintzat hartu barik. Ildo horretan, sexu jazarpena eta jazarpen sexista ere aipatu behar dira.

Hori esanda, galdetu zaigun Lege Aurreproiektua izateko aukera balioesten dugu, zeren emakume nekazarien eskubideak jasotzen baititu eta herri administrazioek eskubide hori erabiltzen dutela bermatzeko dituzten betebeharrak zehazten baititu, baita emakumeek, eta bereziki gazteek, lanerako aukerak izatea bermatzeko ere, aukera hori baliatuta eta hala nahi badute landa eremuetan bizi daitezen eta belaunaldien arteko errelebua lortzeko.

<b>TITULARRAK, PERTSONA FISIKOAK ETA USTIATEGIKO BURUAK, ADIN-TALDEEN, TITULAR MOTAREN ETA SEXUAREN ARABERA</b>						
	Titularrak			Titularrak, ustiategiko buruak		
	Sexu biak	Gizonak	Emakumeak	Sexu Biak	Gizonak	Emakumeak
Adin guztiak eta ustiategi guztiak	15.666	10.466	5.200	15.104	10.231	4.873
25 urtetik beherakoak	63	51	12	59	48	11
25-34 urte	588	443	145	575	436	139
35-44 urte	1.801	1.301	500	1.752	1.276	476
45-54 urte	3.246	2.192	1.054	3.170	2.164	1.006
55-64 urte	4.686	3.288	1.398	4.536	3.219	1.317
65 urte eta gehiagokoak	5.282	3.191	2.091	5.012	3.088	1.924
Iturria: INE						

<b>SOLDATAPEKO LAN FINKOA, LAN EGINDAKO DENBORAREN EHUNEKOAREN ETA SEXUAREN ARABERA</b>				
Lan egindako denboraren ehunekoa	Ustiategien Kopurua	Sexu Biak	Gizonak	Emakumeak
<25%	1.100	1.413	1.202	211
>=25 a <50%	73	232	181	51
>=50 a <75%	66	107	85	22
>=75 a <100%	79	137	118	19
=100%	187	259	212	47
Iturria: INE				

Hala, hainbat helburu operatibo ditu Legeak: emakume nekazariak titulartasuna eskuratzea sustatzea, emakumeen kontratazioa erraztea; emakume nekazariak erabakiak hartzeko organoetan izatea eta parte hartzea bermatzea; eginkizunak banatzeko tradiziozko ereduaz azpimarratzea (ustiategiko lana, etxeko lana eta aisialdia); emakumeen eta gizonen osasunaren gaineko faktore bereizgarriak

aintzat hartzea eta neurri egokiak hartzea; eta sexu jazarpenari eta jazarpen sexistari aurre egiteko neurriak abiaraztea.

Xede nagusiari gagozkiola, Batzorde honek uste du zenbait alderdi hobetu daitezkeela Aurreproiektuan; horien artean, hauexek aipa daitezke:

1. **Nekazaritzako euskal administrazioei buruz eginiko aipamena zehaztea**

"Nekazaritzako euskal administrazioak" aipatzen direnean, zer biltzen duen zehaztea komeni da. ("Euskal administrazioak" aipamenak ez du zalantzarik, baina tarteko NEKAZARITZAKO izendapen horrek eskumenen eremu bat zehazten du, eta euskal administrazio guztiek ez dituzte eskumen horiek eratzikita).

2. **Ez da aurreikusi Estatutua betetzen dela bermatzeko biderik**

Ikusi dugunez, Aurreproiektuan hainbat eskubide aipatu arren, ez da aurreikusten horiek eraginkortasunez betetzen direla bermatzeko jardunbiderik edo biderik, ezta eskubide urraketak edo eraginkortasunik eza zuzentzeko eta zigortzekorik ere.

Horrek duen garrantzia kontuan izanik, Estatutuan TITULU ESPEZIFIKOA sartzea proposatzen dugu, eta bertan aipatuko dira, banan-banan eta artikulatu batean, zein eskubide dituzten lehen sektorean lan egiten duten emakumeek.

**"Hauexek dira nekazaritza, abeltzaintza edo basogintza jardueraren bat egiten duten emakumeen funtsezko eskubideak:**

1. Errespetuz tratatuak izateko.
2. Sexuagatik zuzenean edo zeharka diskriminatuak ez izateko.
3. Sexu irainik edo jazarpenik ez jasateko.
4. Nekazaritzaren ustiategiaren titulartasuna baldintza berdinetan eskuratzeko.
5. Nekazaritzako administrazioetan edo erakundeen gobernu eta ordezkaritza organoetan parte hartzeko gizonezkoen baldintza berdinetan, baita lehen sektorean diharduten pertsona juridiko, publiko edo pribatu gisa ere.

6. Zuzendaritza eta kide anitzeko organoetan presentzia orekatua izateko, Lege honen 7.12. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz, eta baldintza beretan erabiltzea presentzia hori.
7. Baliozko solaskidetzat legitimatuta izateko.
8. Ordeztua izateko laneko ezintasuna denean.
9. Aisialdia, denbora libre eta atsedena izateko.
10. Osasuna izateko lanean.
11. Kalitatezko informazio eta arreta baliabideak izateko genero-indarkeria prebenitzeko.
12. Herri administrazioen arreta jasotzeko genero-indarkeriaren kasuetan, baita lanean jarraitzeko ere eraso izan aurreko baldintza beretan.
13. Lehentasunez kontratatuak izateko gizonen aurretik, Lege honetan xedaturikoaren arabera

Legezko kontrako ekintza izateari kalterik egin gabe, administrazio zehapena izango da funtsezko eskubide horiek eraginkortasunez erabiltzea galaraztea edo eskubidea urratzea. Eskubideok eraginkortasunez erabiltzea galarazten duenak edo urratzen duenak zigorra jasoko du 1398/1993 Errege Dekretuan ezarritako prozeduraren eta erregelamenduetan ezarritakoaren arabera."

Eta aurreko artikulua zaintzeko eta berme handiagoa lortzeko, beste artikulua hau gehitzea proposatu da:

**“Eskubideen utziezintasuna.**

Deusez zuzenbide osoz izango da lege honetan eta arau osagarrietan aintzatetsitako eskubideak erabili aurretik uko egitea, baita hura aplikatuzetik baztertzea xede duen itun oro ere. Lege honi edo bere araudi osagarriari iruzur eginez gauzaturiko ekintzak ez du galaraziko itzuri egin nahi den araua aplikatzea".

3. **Finantzazioa eta Memoria Ekonomikoa**

Aurreproiektuan, finantzazioa errazteko zenbait neurri ezartzeko eskatzen zaie nekazaritzako euskal administrazioei. Hala ere, ez da esaten zelan edo zein aurrekonturekin, edo Sailak diru-baliabide propioak erabiliko dituen neurriok finantzatzeko.

Bestela esanda, aurreikusitako neurriak, emakume nekazarientzako ekintza positiboak eta jarduketak abiaraztea bermatzeko memoria ekonomikorik ez dagoela ikusten dugu.

Ildo horretan, komenigarritzat jotzen dugu araupetzea, eta neurri horiek gauzatu ahal izango direla adieraziko da, zeren eta, osterantzean, neurriak gauzatu beharko genituzke nahitaez nekazaritzako administrazio guztiok, gaitasuna eta baliabideak edozein direla ere.

Halaber, laguntzez eta diru-laguntzez hitz egitean, nekazaritzaren eremuarekin lotutakoak zehaztea proposatzen dugu, zeren eta, hala ez balitz, edozein eremutan lehenetasunak ezartzen direla ematen baitu

II/12j

## III.2 Oharbide Espezifikoak

### I. TITULOA: XEDAPEN OROKORRAK

#### 3. Artikuloa. Tratu-berdintasuna

- 1. puntua. Gure ustez, puntu honetan emandako beren-beregiko debekua ez da administrazioetara mugatu behar eta, beraz, honelaxe jaso beharko litzatekeela proposatzen dugu:

“Debekatuta dago nekazaritzako euskal administrazioek, **erakundeek edo pertsona juridikoek** inor diskriminatzea sexuagatik, zuzenean zein zeharka, horretarako modua edozein dela ere”.

- 3. puntua. Hauxe aldatzea proposatzen dugu:
- “Ez dira sexuaren ziozko diskriminaziotzat hartzen honako neurri hauek: emakumeentzat eta gizonentzat tratu ezberdina proposatu arren, zentzuzko justifikazio objektiboa dutenak, eta horien artean sartzen dira emakumeentzako ekintza positiboan oinarriturikoak, hain zuzen arrazoi biologikoengatik sexu bateko pertsonak bereziki babesteko, edo gizonezkoak etxeko lanetan eta pertsonak zaintzeko lanetan sartzea sustatzeko.”



## **7. Artikulua. Definizioak**

- Kooperatiba sozietateak sartzeko, honako adierazpide hau gehitu beharko litzateke 12. idatz-zatian:  
 “12. Ordezkaritza orekatua: Lau kideetik gorako pertsona anitzeko organoetan ordezkaritza orekatua izango da sexu bakoitzak gutxienezko %40ko presentzia duenean; lau kideko edo gutxiagoko pertsona anitzeko organoetan, bi sexuak ordezkatuta daudenean. Sozietate zibiletan eta merkataritza sozietateetan, enpresa publikoetan izan ezik, sexu bakoitzaren eskuetan dauden gizarte partaidetzen kopuruan edo ehunekoan. **Eta kooperatiba sozietateetan, haiek dituzten botoen kopuruan (sexu bakoitzari dagokiola ulertzen da)**”

11/12*j*

## **II. TITULUA: NEKAZARITZA USTIATEGIEN TITULARTASUNA ETA TITULARTASUN PARTEKATUA**

### **17. artikulua. Emakumeak gizarte segurantzaren afiliatzearen araupetzea sustatzea.**

Lehenik eta behin, artikuluaaren tituluan dagoen aldaketari erreparatu behar zaio, “araupetzea” sartu dela-eta.

Bigarrenik, azken lerroaldeko azken zatia kentzea proposatzen dugu:

“Programa horiek aplikatuko zaizkie Euskal Autonomia Erkidegoan dauden nekazaritza ustiatzearen emakume titularrei edo titularkideei, baldin eta bere konturako langileen edo autonomoen langileen araubide berezian sartzeko badira Gizarte Segurantzako nekazaritzako norberaren konturako langileentzako Sistema Bereziaren bidez, edo haiei une baten egokitu dakiekeena, bereziki Gizarte Segurantzaren sartzeko erretiro pentsiorako eskubidea ekarriko ez duela kalkulatzeko bada.”

## **III. TITULUA. EMAKUMEEK NEKAZARITZAREN SEKTOREAN DUTEN ORDEZKARITZA OREKATUA**

Ohartarazi behar dugu titulua aldatu egin dela bidalitako aurreproiektuan

agertzen denarekiko; izan ere, “orekatua” hitza sartu da.

#### IV. TITULUA: GIZARTE ESKUBIDEAK

##### 22. artikulua. Bateratze arduratsua

Gure ustez ez da iraunkorra ordezeko zerbitzuak bermatzea artikuluan azaltzen den moduan. Eta, nolahi ere, komenigarria izango litzateke jakitea zeinen pentzura izango diren zerbitzuon gastuak.

##### 23. artikulua. Laneko osasuna

4. puntuari dagokionez, hauexek gehitzea proposatzen dugu:

4.- Nekazaritzaren sektoreko lan segurtasun eta osasuneko politketan, estrategietan eta planetan, emakumeen eta gizonen balio, rol, egoera, baldintza, igurikapen eta behar ezberdinak jasoko dira, eta osasunaren inguruko maila parekagarria lortzeko helburuak, xedeak eta jarduketak sartuko dira. Nolanahi ere, hauexek egin behar dira:

- a. Laneko arriskuen prebentzioaren araudia aplikatzen dela zaintzea eta kontrolatzea emakume nekazarien artean, honako hauen bidez:
  - Sexu aldagaia arlo honetan diagnostiko guztietan sartzea eta lorturiko datuak sexuen arabera bereizita erabiltzea eta aztertzea
  - Adierazleak identifikatzea eta definitzea, emakumeen eta gizonen balio, rol, egoera, baldintza eta igurikapenen aldetik dauden ezberdintasunak gehiago ezagutzeko.
- b. Lanpostuak, tresnak, ekipoak, lan-prozesuak, **jantziak eta oinetakoak**, etab. diseinatzean, emakumeen eta gizonen arteko ezberdintasunak kontuan hartzea.

Lehen kasuan, datuak aztertzea garrantzizkoa delako, ez bakarrik erabiltzea; eta bigarren kasuan, emakumeentzako taila espezifikoak izateak duen garrantziatik jantzien eta oinetakoen aldetik.

## **24. artikulua. Indarkeriaren eta jazarpenaren kontrako babesa**

Lehenik eta behin, landa eremuaren inguruabar bereizgarriak aintzat hartuta, gure ustez Legeak eskubide hori erabiltzen dela bermatzeko neurri zehatzak ezarri beharko lituzke. Neurrioren artean, hauexek aipa daitezke: lur-eremuak, landa eremuko harrerako etxebizitzak adingabeek beren inguruetik mugitu beharrik izan ez dezaten.

Bigarrenik, gure ustez komenigarria da testuan aipatzea beharrezkoa dela datuen isilekotasuna bermatzea.

## **VI. TITULUA: JARRAIPEN BATZORDEA**

11/12j

### **29. artikulua. Sorrera eta eraketa**

1. idatz-zatian ez dira sartzen nekazaritza enpresa-elkarte nagusien ordezkariak nekazaritza sindikatuen antzeko kopuruan; hori dela-eta, j) idatz-zatia gehitzea proposatzen dugu, eduki hau izango duena:

**j) Hiru pertsona, nekazaritzako enpresa-elkarte nagusien ordezkartzan.**

### **30. artikulua. Egitekoak**

- 2. puntuan, ez da jasota utzi nekazaritza administrazioari txostena igortzea. Igortze hori sartzea proposatzen dugu.
- 3. puntuan esaten denez, diskriminazio positiboko neurriak kentzea proposatuko du Batzordeak, baina ez du esaten nori zuzenduko zaion proposamena. Zehaztu beharko litzatekeela irizten diogu. Bestalde, nahiz eta Legearen Aurreproiektuko artikulatuetan beti eta zuzen erabiltzen den “ekintza positiboa” adierazpena, 3. puntu honetan "diskriminazio positiboko neurriak" erabiltzen da. Ildo horretan, nabarmendu behar da Europar Batasunak aspaldian egin zuela “diskriminazio” izendapena soilik Zuzenbidearen kontrako kasuetan erabiltzearen aldeko apustua, halako moldez non arestian esandako

“diskriminazio positiboa”ren ordez “ekintza positiboa” adierazpena jarri zuen.

Halaxe dela egiazta daiteke pertsonen arraza edo etnia edozein dela ere pertsonen tratu-berdintasunaren printzipioa aplikatzeari buruzko ekainaren 29ko 2000/43 EE Zuzentarauan, baita lanaren eta okupazioaren arloko tratu-berdintasunerako esparru orokorra ezartzeari buruzko azaroaren 27ko 2000/78 EE Zuzentarauan ere.

Horregatik, komenigarria izango litzateke “diskriminazio positiboa” barik “ekintza positiboa” erabiltzea.

II/12*i*

- Idatz-zati bat gehitzea proposatzen dugu, eta bertan sartuko da Jarraipen Batzordearen eginkizunetako bat: 19.4. artikuluan aipatzen diren salbuespenen gaineko aginduzko txostenak ematea.

## XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Gure ustez beharrezkoa da zehaztea Nekazaritzaren eta Elikagaigintzaren abenduaren 23ko 17/2008 Legearen 76. artikulua hori indargabetzeko zioa

## AZKEN XEDAPENAK

- **Bigarrena. Nekazaritzaren eta Elikagaigintzaren abenduaren 23ko 17/2008 Legearen 92. artikulua aldatzea.**

Puntu guztietan pertsona edo pertsonak gehitzea proposatzen dugu (gaztelaniazko bertsioan).

2.- Kontseilua honako kideek osatuko dute:

- a. Autonomia Erkidegoko administrazio orokorrean nekazaritzako eta elikagaigintzako gaietan eskumena daukan titularrak. Lehendakaritzalantetan arituko da, eta Kontseilurako dei egiteaz eta landu beharreko gaiak zehazteaz arduratuko da.
- b. Sail horretako sailburuaren Kabineteko Zuzendaritzako titularrak; lehendakariorde-lanetan arituko da.

- c. Autonomia Erkidegoko administrazio orokorrean nekazaritzako eta elikagaigintzako gaietan eskumena daukan saileko bi ordezkari; gutxienez, zuzendari-kargua dutenak.
- d. Arabako Foru Aldundiko ordezkari batek; gutxienez zuzendari-kargua dutenak.
- e. Bizkaiko Foru Aldundiko ordezkari batek; gutxienez zuzendari-kargua dutenak.
- f. Gipuzkoako Foru Aldundiko ordezkari batek; gutxienez zuzendari-kargua dutenak.
- g. Euskadiko Udalen Elkarteko (Eudel) ordezkari batek.
- h. Nekazarien elkarte profesional adierazgarrienen arteko bakoitzak 88. artikuluan ezarritako eran lortutako ordezkariak; gehienez 5, elkarte bakoitzeko.
- i. Euskadiko ekoizleen elkarteetako ordezkariak, lege honen 89.2. artikuluan xedatzen denaren arabera.
- j. Euskadiko nekazaritza- eta elikagaigintza-industrien elkarteetako hiru ordezkariak, elkarteek adostasunez izendatutakoak. Txandaka daitezke.
- k. Euskadiko Basogintza Elkarteen Konfederakundeko ordezkari batek.
- l. Euskadiko Nekazaritza Kooperatiben Federazioko ordezkari batek.
- m. Nekazaritza ustiategiaren aholkulari gisa aitortuta dauden erakundearen ordezkari batek, erakundeak adostasunez izendatutakoak. Txandaka daitezke.
- n. Emakume Nekazarien Batzordeko ordezkari batek.

11/12*i*

- **Hirugarrena. Arauen garapena**

Gehiegizkoa iruditzen zaigu Legean ezarritakoari egokitzeko hiru urteko epea ematea Autonomia Erkidegoko erakunde erkideei eta lurralde historikoetako foru organoei.

- Azkenik, beharrezkotzat jotzen dugu azken xedapen berria izatea kasu jakin batean: Legean zehaztapena jasotzen denean eta, eskubideen urraketaren gaineko araudia egitean, zehaztapen hori eta arauak azken xedapenean biltzen direnean.

## **IV.- ONDORIOAK**

---

Euskadiko EGABk egokitzat jotzen du emakume nekazarien Estatutuaren Legearen Aurreproiektuari buruzko izapidetzea, betiere organo aholku-emaile honek egin dituen oharbideekin; eta gobernuari gomendatzen dio komenigarria dela Foru Zuzenbidea berrikustea aztergai dugun arloan. Hala, Legea erabiltzea bateragarria izango da Foru Zuzenbide horrekin.

II/12*j*

Bilbon, 2012ko ekainaren 15ean

O.E. Presidentea  
Juan María Otaegui Murua

Idazkari Nagusia  
Francisco José Huidobro Burgos

